

Oroitidazkia 2008



Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Dirección de Economía y Planificación


Lehia askearen aurkako jokaerak zelatatzen ditugu

Zehapen-espedienteak

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua 9 zehapen-espediente izapidetzen hasi da 2008an.

Espediente horiei dagozkien sektoreak hauexek izan dira:


■	Elkargo profesionalak	2
■	Kontratazio publikoa	1
■	Merkataritza-banaketa	1
■	Aisialdia	1
■	Aseguruak	1
■	Zerbitzu medikuak	2
■	Garraioak	1



Espedienteen izapidetzeak ondoko emaitza eduki du:

- LDEA-ri artxibatzeko proposamena: 3 espediente
- LBN-ren eskumena: espediente 1
- Izapidetzen ari dira: 5 espediente

Espedienteen izapidetzearen egoera:



- Artxibatzeko proposamena
- LBNren eskumena
- Izapidetzan

Halaber, Euskal Zerbitzuak 2007an hasitako 4 espedienteen izapidetzea amaitu du 2008an. Lehen espedienteari dagokionez, eraikuntzaren arlokoa, Zerbitzuak bere txosten-proposamena bidali dio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari eta erakunde honek erabakitako bistan parte hartu du. Beste bi espedienteetan Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari artxibatzeke proposamena egin dio. Bukatzeko, laugarren espedienteetan Zerbitzuak hitzarmen bidezko amaiera proposatu dio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari, honek hitzarmen bidezko ebazpena eman dezan.

2007an hasitako 8 espediente izapidetzen jarraitzen dira, hauetako bi bakar batean metatuak izan dira euren arteko zuzeneko loturagatik.

Espedienteen izapidetzean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren 2008ko urriaren 29ko ebazpenaren ondorioz (4/08 Ebazpena, Bizkaia eta Gipuzkoako HJAK), Elkargo Profesionalekin hainbat promozio ekintza egiten hasi da.

Azkenik, Zerbitzuak Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak jarritako zehapen 1 (aseguruen arlokoa) bete den zaindu du.



Azterlan juridiko-ekonomiko eta lehiakoak

Zerbitzuak “*Osasun-laguntzako aseguria Euskal Autonomia Erkidegoan*” izeneko azterlan juridiko-ekonomiko eta lehiakoa argitaratu eta banatu egin du.

Azterlan honetan ebaluatu egin dira sektoreko eragileak jarduteko duten esparru juridiko eta ekonomikoa eta baita eragile ekonomikoen jarrera ere, merkatu lehiakorreko oinarrizko betebeharrekin alderatutik.

Halaber, laster beste 2 azterlan argitaratuko dira:

- *Lehiaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan.*
- *Igogailuen instalazioa eta mantentze-lana Euskal Autonomia Erkidegoan.*



Zerbitzuak ondoko Egitasmo ekonomikoei buruzko txostenak egin ditu, beti ere lehiaren ikuspuntuatik:

- Biodibertsitatearen lerro estrategikoak EAEn CAE 2008-2015.
- Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera garatzeko Plan Estrategikoa .
- Elikagai industriaren eta kalitatearen Plan Estrategikoa 2008-2011.
- Sasoiko lanaren arretarako Plan Integrala 2008-2011.
- Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II Euskal Plana 2008-2011.
- Kontsumoko Plana 2009-2012.
- Gazte-justiziako III. Plana EAEn CAE 2008-2012.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2008-2010.
- Kultura Azpiegituren Planaren lerro estrategikoak 2008-2012.

Elkargo profesionalen estatutuen txostenak

Zerbitzuak ondoko Elkargoen estatutuei buruzko txostenak egin ditu, beti ere lehiaren ikuspuntutik:

- Gipuzkoa eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoa.
- Euskadiko Podologoien Elkargoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Logopeden Elkargoa.
- Gipuzkoako Graduatu Sozialen Elkargoa.

Fund. publikoen estatutuei buruzko txostenak

Zerbitzuak lehiaren ikuspegitik ondoko Fundazio publikoei buruzko txostenak egin ditu:

- Biscaytik Fundazioa.

Lege aurreproiektuei buruzko txostenak

Zerbitzuak lehiaren ikuspegitik ondoko aurreproiektuei buruzko txostenak egin ditu:

- Farmazia-sorospenaren antolamenduko legearen aurreproiektua.

Araudiekiko jarduerak

Zerbitzuak 36/2008 Dekretua, martxoaren 4koa (2008ko martxoaren 17ko EHAA 54zk.) egiteko lanetan parte hartu du. Dekretu horren helburua Lehiaren Babeseko Euskal Auzitegia sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Babes Zerbitzuaren eginkizunak ezarri zituen dekretua aldatzea zen, 15/2007 Lehiaren Defentsarako lege berrira egokituz eta organu bakoitzak dituen funtzioak zehaztuz.

Halaber, zuzenketen proposamenen bidez, Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren (otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren bidez argitaratua) idazketan lan egin du. Erregelamendu honek, 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa garatzen du, eta beste berrikuntzen artean errukitasun programa jartzen du indarrean. Hori dela eta Zerbitzuak honako ohar hau argitaratu du: *Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan aurkezten diren isuna ordaindu beharrik ez izatea edo isunaren zenbatekoa murriztea (errukitasun programa) eskaeren izapidetzea.*

Beste administrazio jarduerak

Zerbitzua, EJE Eusko Jaurlaritzako informatikako enpresa publikoarekin elkarlanean, espedienteak kudeatzeko aplikazioan ezartzeko modulu bat diseinatzen ari da. Moduluaren helburua interesatua etxetik mugitu gabe espedientearen egoera ikustea da.

Halaber, Zerbitzuak bere eguneroko eginkizunetan 400 idatzi baino gehiago bidali zituen 2008 urtean.

Bukatzeko, Zerbitzuak sektore ezberdinetako agenteak eskatuta, lehiaren gaiei buruzko 8 elkarrizketa izan zituen.

Erakunde ofizialetan parte hartzea

2008ko maiatzaren 6an eta 19an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Gatazketarako Aholku Batzordean parte hartu zuen bi zehapen espedienteen izapidetzaren ardura estatuarena edo autonomia-erkidegoarena zen erabakitzeko. Azkenean Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari egotzi zitzaion eskumena.

Mintegi, jardunaldi eta kongresuetan parte hartzea

Zerbitzuko teknikariak ondoko jardunaldietan parte hartu dute bertaratu gisa:

- 15/2007 Legeko, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa, 3.artikulua ezartzeari buruzko jardunaldia, hau da, interes publikoari kalte egiten dioten lehia desleialeko egintzei buruzkoa. Madrilen, 2008ko otsailaren 6an, Lehiaren Batzorde Nazionalak antolatua.
- “Autonomia Erkidegoetako Lehiaren Defentsarako organuetan Lehia Defentsarako lege berriak duen eragina” jardunaldia. Santiago de Compostelan, 2008ko otsailaren 7an, Lehiaren Batzorde Nazionalak antolatua.
- Euskadiko Lehiaren II. Jardunaldia. Bilbon, 2008ko martxoaren 4an, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak antolatua.
- “Isileko kolusioa eta kolusioa errazteko jarduerak” jardunaldia. Madrilen, 2008ko apirilaren 24an, Lehiaren Batzorde Nazionalak antolatua.
- “XXI menderako Lehia Zuzenbidea” jardunaldia. Zaragozan, 2008ko uztailaren 3an eta 4an, Aragoiko Lehiaren Babeserako Auzitegiak antolatua.
- “Isunak ezartzeko irizpideak” jardunaldia. Madrilen, 2008ko urriaren 27an, Lehiaren Batzorde Nazionalak antolatua.
- “Laguntza publikoen kontrolaren erreforma eta horren eragina Euskadin” jardunaldia. Donostian, 2008ko azaroaren 19an, Eusko Ikaskuntzak eta Lehiaren Babeserako Euskal Auzitegiak antolatua.
- Lehiaren Batzorde Nazionalaren II. Urteko jardunaldiak. Madrilen, 2008ko azaroaren 27an.

